

# **Bibliografia- gomendioak eta OPACeko karruselak sortzea**

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

– Tel. 945 01 94 71 –

e-mail: [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)




**Liburutegiak**

## AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ESKULIBURUAREN XEDEA ETA ZABALKUNDEA	3
1. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK ETA KARRUSELAK	4
1.1. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK	4
1.2. BIBLIOGRAFIA ESTATIKOAK ETA KARRUSELAK	5
1.3. BIBLIOGRAFIA ALDAKORRAK	15
1.4. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK KONTSULTATZEA	17

## ESKULIBURUAREN XEDEA ETA ZABALKUNDEA

Eskuliburu honen helburua da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) OPACera sartzean irakurleei erakutsiko zaizkien bibliografia-gomendioak eta karruselak egiteko prozedura zehaztea.



The screenshot shows the Liburutegiak website interface. At the top, there is a navigation bar with the Liburutegiak logo, a search bar, and links for 'MARKATUAQ', 'BILATU ETA GEHIAGO', 'LAGUNTZA', and 'Saioa hasi'. Below the navigation bar, there are search filters for 'Bilaketa orokorra', 'Beste bilaketa batzuk', and 'Bibliografia-gomendioak'. A search bar with the placeholder 'Sartu bilaketa-terminoak' and a search icon is present. Below the search bar, there are buttons for 'Nobedadeak' and 'Bilaketa aurreratua'. The main content area features a row of service tiles: 'Bilgunea' (Euskadiko Katalogo Kolektiboa), 'Aubi' (Autoritateen katalogo elebiduna), 'euskariana' (Euskal kulturaren leiho digitala), 'eLiburutegia' (Liburu elektronikoen mailegua), 'EFILM' (Lineako zinema), and 'liburubila' (Baliabideen bilatzaile konbinatua). Below this, there is a section titled 'Erakusmahaia' (Carousel) for 'Sherlock Holmes' books. The carousel shows several book covers with their titles and authors, such as 'El encuentro : Sherlock Holmes', 'Sherlock Holmes y el misterioso amigo de Oscar Wilde', 'Sherlock Holmes eta itsas tratatua', 'Los años perdidos de Sherlock Holmes', 'Etude en rouge ; le signe des quatre', and 'Estudio en escarlata'. A 'Ikusi guztiak' button is visible in the top right corner of the carousel.


## 1. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK ETA KARRUSELAK

### 1.1. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK

Absysnet-ek *Bibliografia-Gomendioak* izenekoak sortzeko aukera ematen du. Liburutegi bateko liburuzainek aukeratutako lanen zerrendak dira, normalean gai jakin bati buruzkoak, eta irakurleei irakurketa-iradokizun gisa erakusten zaizkie. *Bibliografia-gomendioen* adibideak izan daitezke Arthur Conan Doyle-ren lanen zerrenda, *Obabakoak* liburuaren hainbat edizioen zerrenda edo azken hiru hilabeteetan gure liburutegian sartutako haur-literaturako lan guztiak.

Bi *Bibliografia-Gomendio* mota daude: aukeratutako lanak banan-banan gehituz sortzen direnak, *Bibliografia Estatikoak* deitutakoak, eta bilaketa-sententzia konplexu edo ez hain konplexu baten emaitza direnak, *Bibliografia Aldakorrak* izenekoak.


*Bibliografia Estatikoak* eta *Bibliografia Aldakorrak* liburutegi bakoitzak konfiguratu dezakeen OPACeko elementuetako bat dira, eta Absysnet-en interfazearen ezkerreko aldeko menutik sartzen da horietara, [absysNET Opac](#) atalaren bidez.




Aurrerago azalduko dugunez, OPACen orri nagusian erakusten diren karruselak *Bibliografia Estatiko* mota jakin batetik eratortzen dira.

## 1.2. BIBLIOGRAFIA ESTATIKOAK ETA KARRUSELAK


Bibliografia estatikoen atalean sartzeko, *absysNET Opac* ataleko menua zabaldu behar da.



Bibliografia estatiko berri bati alta emateko *gehitu* botoia sakatu behar da



eta bibliografia estatiko berriaren ezaugarriak eta edukia zehaztea ahalbidetzen duten eremu guztiak betetzen joan.




Eremu guztiak ez dira ezinbestekoak, eta eremu batzuek, bete gabe utziz gero, lehenetsitako balioa hartzen dute.

**Biblioteka eta sukurtsala** – Lehenetsita agertuko dira bibliografia estatikoa sortzen ari den liburutegiarekin eta sukurtsalarekin. Garrantzitsua da kontuan izatea zein OPACetan erakutsi nahi den bibliografia estatikoa. Gure liburutegiak sukurtsal bat baino gehiago baditu eta sukurtsal guztietako OPACetan erakustea nahi badugu, liburutegia hautatuta utzi behar dugu, eta sukurtsala eremua hutsik geratu behar da. Sukurtsal baten OPAC kontsultatzen dugunean soilik erakutsi nahi badugu, orduan, liburutegiaz gain, sukurtsalaren eremua ere bete behar da. Liburutegia eta sukurtsala hutsik geratzen direnean, bibliografia estatiko hori EIPsko OPAC guztietan erakutsiko da: Liburutegi Zerbitzuarentzat soilik dagoen aukera bat da.


**Hasiera-eguna eta amaiera-eguna** – Bibliografia hori erakusteko epea mugatu daiteke, adibidez, komikiei eskainitako hamabostaldi bat bezalako efemeride bat ospatzeko. Hasiera-egunik adierazten ez bada, bibliografia estatikoa baliozkotu eta berehala erakutsiko da. Amaiera-egunik adierazten ez bada, bibliografia estatikoa denbora-mugarik gabe erakutsiko da.

**Aktiboa** – Koadro hau gurutze batekin markatuta egon behar da bibliografia estatikoa OPACen ager dadin. Uneren batean, denboraldi batean ez erakustea nahi badugu, nahikoa da desaktibatzea, koadro hori hutsik utzita. Hainbat modutan jolas daiteke hasiera-egunarekin, amaiera-egunarekin eta aktibo botoiarekin, bibliografia estatiko bat denbora-tarte jakin batzuetan erakusteko edo ez erakusteko.


**Etxeko orrialdean bistaratu** – Bibliografia estatiko guztiak OPACen *Bibliografia-gomendioak* izeneko atalean jasotzen dira, bilaketa-kutxaren gainean. Atal horretan sakatzean, *Etxeko orrialdean bistaratu* botoia aktibatuta duten bibliografia estatikoak bakarrik agertuko dira. Bibliografia estatiko guztiak ikusteko, *Etxeko orrialde* horretan *Ikusi guztiak* botoia sakatu behar da. Garrantzitsua: lauki honek ez die eragiten karruselei, eta botoi hori aktibatuta zein desaktibatuta egon erakutsiko dira.



*Etxeko orrialdea*



*Ikusi guztiak*



**Hizkuntza** – Bibliografia estatikoa noiz erakutsiko den aukera daiteke, OPAC kontsultatzen ari den hizkuntzaren arabera. Euskaraz kontsultatzen denean soilik erakustea nahi badugu, balioa eu-ES izango da; gaztelaniaz kontsultatzen denean soilik erakustea nahi badugu, balioa es-ES izango da; beti erakustea nahi badugu, nabigazio-hizkuntza edozein dela ere, nahikoa da eremu hori hutsik uztea.

**Eredua** – Ez da eremu hau bete behar. Besterik adierazi ezean, hutsik uzten bada, EIPSren katalogo bateratuaren OPACa agertuko da. (Absysnet-en eskuragarri dauden beste bi "OPAC"ak Bilgunea eta Aubi dira).


**Identifikatutako irakurlea** – Koadro hau gomendatutako bibliografia batean markatzen bada, irakurlea OPACen erabiltzailearekin eta pasahitzarekin identifikatzen denean soilik agertuko da.

**Irakurle-mota** – *Identifikatutako irakurlea* koadroa aktibatuta dagoenean, gomendatutako bibliografia bat zuzentzen zaion publikoa findu daiteke, adibidez, soilik haur irakurleei edo soilik irakurle helduei zuzendutako bibliografia gomendatuak sortzeko. Mota berezirik aukeratu ezean, irakurle guztientzat izango litzateke.


**Taldea eta azpitaldea** – Bibliografia estatikoak bi mailatan antolatzeko aukera ematen du, liburutegi bakoitzaren irizpideen arabera, adibidez, gaien arabera, egutegi-aldien arabera, etab. Eremu horietan sartzen da talde edo azpitalde bakoitza identifikatzeko erabili nahi den izena era laburrean. Taldeen eta azpitaldeen egitura bibliografia estatikoak erakusteko moduan islatzen da, *Bibliografia-gomendioak* sakatzean.

### Obrak nola aukeratu


Bibliografia estatikoan sartu nahi diren lanak gehitzen joateko, banan-banan kargatu behar dira, *Izenburuak* koadroko *Gehitu* botoia sakatzuz.



Botoi hori sakatzean, leiho bat irekitzen da, obrak bi modutara aurkitzeko aukera ematen duena: lehenengo koadro bat, non nahikoa den TITN zenbakia idaztea, edo bigarren koadro bat, luparen gainean klik egin ondoren hainbat eremutan bilaketa egiteko aukera ematen duena. Nahi den bilaketa-irizpidea idatzi behar da, eta *bilatu* sakatu.



Lupa sakatzen denean, bilaketa-eremuak honako hauek dira: ISBN, edozein eremu, egilea, titulua, argitaratzailea, gai-sarrera.



Lan-eremua Katalogoa CATA

ISBN

Edozein eremu

Mota guztietako egileak


Tituluak

Argitaratzailea


Gaiaren goiburu sekundarioa - Gaia

Bilatu Ezeztatu

Interesatzen zaigun obra bat aurkitu ondoren, dagokion ezkerreko koadroa markatu eta, ondoren, *Hartu* sakatu.



Hartu ondoren, *onartu* botoia sakatu eta izenburua bibliografia estatikoari erantsiko zaio.



Bilaketa eta atzemate prozesua errepikatzea nahikoa da nahi dugun bibliografia estatikoa osatzeko.

**Bibliografías estáticas**

Biblioteca: B06000 | Bilbo-Udal Liburutegiak

Sucursal: 602 | Euzobarrak

Fecha de comienzo: [ ]

Lengua: [ ]

Tipo de persona lectora: [ ]

Grupo: El medio natural de Euskadi

Subgrupo: Jardines

Descripción: Jardines, parques y bosques de Euskadi

Peso: 99

Mostrar en página principal:

Fecha final: [ ]

Modelo: [ ]

Personas Lectoras identificadas: [ ]

Activo:

**Títulos**

Id. Adir.	Id. Secuencial	Título	Peso
3511		El parque de Cristina-Enea /	
8358		Nuestros bosques = Gure basoak /	
15102		Parkeak eta lorategiak /	
21482		El parque de Ayete /	
21483		Aiete parkia /	
59611		El PARQUE de Doña Casilda de Iturrizar = Doña Casilda de Iru	
418029		Ibitaldeak Victoria-Gasteiz erazten berdeen zehar /	
535349		Casilda Iturrizar parkia handitzea = Ampliación Parque Doña	
572666		Bilbao : lorategia ; Bilboko 1. Nazioarteko Lorategi Lehiake	
629948		+Verde : noticias del anillo verde = erazten berrieko albate	
767872		10 pasos de diez = una vuelta por el Anillo Verde de Vitoria	20
769093		Hemer : bilbole bilain = bira bat Vitoria-Gasteizko erazten b	19
798835		Asialdirako gunak Ibarrekolandan	
811538		Bilboko Nazioarteko Lorategi Lehiaketa = Concurso Internacio	
813787		Biografía del Paseo del Arcenal /	
970281		Ubideen Diritokia = El Paseo de los Caños	
1023991		Bakearen eta Giza Eskubiduen Etxea = Aieteko Kultur Parkia :	
1032976		Creación de ambientes en jardines : diseño y decoración para	
1033088		Cristina-Enea : Lorategi pribatukiko herri parkiera = De jardí	
1196090		Askaria parkian /	
1250660		El "anillo verde" logra otro récord con 170.000 visitas en s	18
1257612		El jardín de Echanoeta, único pulmón del Casco Viejo...	

**GARRANTZITSUA:** Bibliografia estatiko bat, OPACen Gomendio Bibliografikoak atalean ez ezik, OPACen azaleko orrian ere karrusel gisa agertzea nahi badugu, orduan bibliografia hori *Expositor* taldeari esleitu behar zaio.

**Bibliografías estáticas**

Biblioteca: [ ]

Sucursal: [ ]

Fecha de comienzo: [ ]

Lengua: [ ]

Tipo de persona lectora: [ ]

Grupo: Expositor

Subgrupo: [ ]

Descripción: Sherlock Holmes

Peso: 10

Mostrar en página principal:

Fecha final: [ ]


Modelo: [ ]

Personas Lectoras identificadas: [ ]

Activo:

**Títulos**

Id. Adir.	Id. Secuencial	Título	Peso
24409		Sherlock Holmes ez da ezereen belar /	1
24734		Sherlock Holmes : Kameliako gizonak /	2
24735		Sherlock Holmes eta kirol arriskuatsutako elkartea /	3
144663		Estudio en escarlata /	4
144903		Etude en rouge ; le signe des quatre /	5
184494		Los años perdidos de Sherlock Holmes : basado en las memoria	6
214527		Sherlock Holmes eta itasa tratatua /	7
214535		Sherlock Holmes y el misterioso amigo de Oscar Wilde /	8
257555		El encuentro : Sherlock Holmes, Drácula /	9



Liburutegiak

MARKATUAK [ ] BILATU ETA GEHIAGO [ ] LAGUNTZA [ ] Saioa hasi [ ]

Bilaketa orokorra [ ] Beste bilaketa batzuk [ ] Bibliografia-gomendioak [ ]

Katalogo osoa [ ] Sartu bilaketa-terminoak [ ]

Nobedadeak [ ] Bilaketa aurreratua [ ]

**Bilgunea** Euskadiko Katalogo Kolektiboa

**Aubi** Autoritateen katalogo elebiduna

**euskariana** Euskal kulturaren leiho digitala

**eLiburutegia** Liburu elektronikoan mailegua

**EFILM** Lineako zinema

**liburubila** Baliabideen bilatzaile konbinatua

**Erakusmahai**

Sherlock Holmes [ ikusi guztiak ]

- El encuentro : Sherlock Holmes
- Sherlock Holmes y el misterioso amigo
- Sherlock Holmes eta itasa tratatua
- Los años perdidos de Sherlock Holmes
- Etude en rouge ; le signe des quatre
- Estudio en escarlata
- Sherlock Holmes eta kirol
- Sherlock Holmes : Kameliako gizonak


*Expositor* taldeari esleitutako bibliografia estatiko guztiak OPACen azaleko orrian erakusten dira, *Erakusmahaian*. Goitik behera ordenatzeko, nahikoa da ordena zenbaki bat esleitzea: zenbat eta zenbaki handiagoa, orduan eta gorago agertuko da karrusela. Karrusel baten ordena esleitzen da *ordena* laukian zenbaki bat idatziz:

Bibliografia estatikak	
Biblioteka	<input type="text"/>
Sukurtsala	<input type="text"/>
Hasiera eguna	<input type="text"/>
Hizkuntza	<input type="text"/>
Irakurle-mota	<input type="text"/>
Taldea	<input type="text"/>
Azpitaldea	<input type="text"/>
Deskripzioa	<input type="text"/>
Ordena	<input type="text"/>


Adibidez, *Sherlock Holmes* bibliografiari ordena = 10 esleitzen badiogu, *Camilo José Cela* bibliografiari ordena = 7 eta *Conan el Bárbaro* bibliografiari ordena = 5, hurrenkera honetan erakutsiko dira:

**Expositor**


**Sherlock Holmes** Ver todos



**Camilo José Cela** Ver todos



**Conan el Bárbaro** Ver todos




Ordenarik esleitzen ez bada eta laukia hutsik uzten bada, dagokion ordenaren balioa = 0 izango da.


*Expositor* taldeko bibliografia estatikoak karrusel gisa erakusten dira soilik OPACen bilaketa-kutxaren bilaketa-maila bibliografia estatikoari esleitutako maila berdina edo txikiagoa denean hierarkikoki. Hauek dira hiru maila hierarkikoak: Liburutegi Zerbitzua / Liburutegia / Sukurtsala [aurreko Liburutegiarena].

Hau da:


Bilaketa-maila Katalogo Osoa bada, Liburutegi Zerbitzuak sortutako karruselak soilik bistaratuko dira.



Bilaketa-maila Liburutegi mailakoa bada, Liburutegi mailan sortutako karruselak eta Liburutegi Zerbitzuak sortutako karruselak bistaratuko dira, baina ez Sukurtsal mailan sortutakoak.



Bilaketa-maila Sukurtsal mailakoa bada, Sukurtsal mailan sortutako karruselak, Liburutegi mailan sortutakoak [sukurtsalari dagokion liburutegikoak] eta Liburutegi Zerbitzuak sortutakoak bistaratuko dira.



Ikusgai dauden karrusel guztien antolamendu bertikala haien pisuaren arabera egiten da; hori dela eta, hainbat sukurtsal dituzten liburutegietan komeni da pisuak esleitzeko estrategia bat diseinatzea, zer karruseli eman nahi zaion lehentasuna kontuan hartuta. Liburutegi Zerbitzuak sortutakoek pisua = 0 izango dute beti, liburutegi bakoitzaren berezko karruselak goiburuan jarri ahal izateko.

Karusel bakoitzaren barruan ere ordenatu daitezke obrak ordena-sistema bera erabiliz; kasu honetan, zenbat eta zenbaki handiagoa, orduan eta ezkererago erakutsiko da obra. Adibidez, aurreko adibideko *Conan el Bárbaroren* karuselerako ordenaren banaketa honako hau da:

Añadir +	Nº secuencial	Título	Peso ▲
	1335631	Día de ira y otras historias /	7
	1189348	Una muerte en Estigia y otras historias /	6
	823682	Conan el Bárbaro /	5
	823675	El príncipe ha muerto y otras historias /	4
	823674	Los dragones negros y otras historias /	3
	248742	Conan el Bárbaro [= Conan the Barbarian /	2
	248741	Conan el bárbaro [= Conan the barbarian /	1
	1346990	La espada salvaje de Conan el Bárbaro /	
	1335817	La sangre de la serpiente y otras historias /	
	1189621	Conan : el bárbaro /	


Obra baten ordenaren balioa aldatzeko, dagokion ordena adierazten duen koadroaren gainean sakatu behar da, eta leiho bat irekiko da ordena esleitzeko edo aldatzeko.

Gehitu +	Zenbaki sekuentziala	Título	Ordena
	165630		3
	195545		2
	529021		1
	545334		4

Ordena


### 1.3. BIBLIOGRAFIA ALDAKORRAK

*Bibliografia Aldakorren* atalean sartzeko, *absysNET Opac* ataleko menua zabaldu behar da.



Bibliografia Aldakorrak bi alderditan soilik bereizten dira bibliografia estatikoetatik:

- Bibliografia horiek osatzen duten lanak bilaketa baten emaitza dira eta, beraz, Bibliografia Aldakorra osatzen dute adierazi diren baldintzak betetzen dituzten obra guztiek.
- Inoiz ez dira erakusten OPACen azaleko orrian karrusel formatuan, ezta *Expositor* izeneko talde bati esleituta badaude ere.



**BIBLIOGRAFIA ALDAKORRA | GEHITU**

**Bibliografia aldakorrak**

Biblioteka  Aktiboa

Sukurtsala  Etxeko orrialdean bistaratu

Hasiera eguna  Amaiera-eguna

Hizkuntza  Mota

Irakurle-mota  Irakurle identifikatuak

Taldea

Azpitaldea

Deskripzioa

Bilaketa

Bilaketa-Aldia

Dokumentu murrizpena


Bibliografia estatikoen parametro komunez gain, ikuspuntu praktikotik desberdintasun handiena da, obrak banan-banan gehitu beharrean, hiru eremu erabili behar direla bilaketa bat definitzeko:

**Bilaketa:** iragazketa-sententzia sinplea edo konplexuagoa idatzi behar da. Hona hemen adibide batzuk, oso erraz batetik landuagoak diren beste batzuetara:

Star Wars

(Mayorga Juan).T100. B-B0601.copi.  
("kultura aniztasuna").t650. s-309  
(S-256 ADJ L-EHA) & (@FEPU >= "2020") baq.leng.

**Bilaketa-aldia:** emaitzen kopurua murrizteko aukera ematen du, obra berrietara mugatuz; horretarako, lau aldi daude eskuragarri: azken urtea, azken sei hilabeteak, azken 3 hilabeteak eta azken hilabetea. Eredu hori hutsik utziz gero, emaitza guztiak erakutsiko dira, antzinasuna edozein dela ere.




The image shows a search filter interface. It has three input fields: 'Bilaketa', 'Bilaketa-Aldia', and 'Dokumentuka murrizpena'. The 'Bilaketa-Aldia' field is a dropdown menu that is currently open, showing four options: 'Azken hilabetea', 'Azken 3 hilabeteak', 'Azken 6 hilabeteak', and 'Azken urtea'.



**Dokumentuetara mugatu:** lauki honen bidez, dokumentuaren alta-data (obra-edizioa), hau da, katalogazio-data eta aleen alta-data bereiz daitezke. Laukia markatzen bada, katalogoan alta-data aurreko atalean adierazitako data-irizpidearekin bat datorren obrak (dokumentuak) hautatuko dira. Laukia markatzen ez bada, alearen alta-data kontuan hartzen da, aurreko atalean adierazitako data-irizpidearen arabera. Horrek aukera ematen du, adibidez, honakoa bezala egoera batekin jolasteko: izenburu bat duela zenbait urte EIPSren katalogoan sartu zen, baina gure liburutegiaren alea duela hilabete baino gutxiago sartu da: *bilaketa-aldia* azken hilabetea bada eta *dokumentuetara mugatu* botoia markatzen badugu, lan hori ez da erakutsiko; aldiz, hutsik uzten badugu, zerrendan agertuko litzateke.

## 1.4. BIBLIOGRAFIA-GOMENDIOAK KONTSULTATZEA

OPACen *Bibliografia-gomendioak* atalak ez ditu bereizten *Bibliografia Estatikoak* eta *Bibliografia Aldakorrak*; aitzitik, guztiak multzo bakar batean konbinatuta agertzen dira, definitu diren taldeen eta azpitaldeen arabera ordenatuta.



Irakurle gisa OPACeko bibliografiako bat aukeratzen dugunean edukiaren xehetasuna ikusteko, bistaratzeko bi modu eta beste funtzionalitate batzuk ditugu eskuragarri.



**Esteka iraunkorra:** gomendatutako bibliografiarekin zuzenean lotzen duen url bat sortzeko aukera ematen du, adibidez, banaketa-zerrenda batean posta elektronikoz bidaltzeko.







**Zerrendaren bista:** obra guztiak zutabe bertikal gisa erakusten dira, karatulak ezkerrean eta deskripzio-xehetasunak eskuinean dituztela.

Liburutegiak HASIERA MARKATUAK BILATU ETA GEHIAGO LAGUNTZA Saioa hasi


Markatu 1 / 9 de 9



**Brown, Russell A.**  
**Sherlock Holmes y el misterioso amigo de Oscar Wilde**  
Russell A. Brown ; traducción del inglés por Miguel Hernández  
Lekua/arg./urtea: Madrid : Valdemar, 1991  
Monografiak Markatu



**Doyle, Arthur Conan, Sir (1859-1930)**  
**Estudio en escarlata**  
Arthur Conan Doyle; edición de Juan Antonio Molina Foix  
Lekua/arg./urtea: Madrid : Valdemar, 2000  
Monografiak Markatu



**Doyle, Arthur Conan, Sir (1859-1930)**  
**Etude en rouge ; le signe des quatre**  
Arthur Conan Doyle ; préface de Germaine Beaumont  
Lekua/arg./urtea: [Paris?] : Laffont, D.L. 1962




**Irudien bista:** obra guztiak karatula-mosaiko moduan erakusten dira, karatula bakoitzaren oinean laburbildutako xehetasun deskribatzaileekin.


Liburutegiak HASIERA MARKATUAK BILATU ETA GEHIAGO LAGUNTZA Saioa hasi

Sherlock Holmes (9 erregistro) Esteka iraunkorra


Markatu 1 / 9 de 9




**Brown, Russell A.**  
**Sherlock Holmes y el mist...**  
Monografiak




**Doyle, Arthur Conan, Sir (185...**  
**Estudio en escarlata**  
Monografiak



**Doyle, Arthur Conan, Sir (185...**  
**Etude en rouge ; le signe d...**  
Monografiak



**Doyle, Arthur Conan, Sir (185...**  
**Sherlock Holmes eta itsas ...**  
Monografiak



**Norbu, Jamyang**  
**Los años perdidos de Sher...**  
Monografiak

